EDUCAMOS

FLOREAGA

GURASOENTZAT GIDALIBURUA
“EDUCAMOS” PLATAFORMA

1. AURKEZPENA

“Educamos” plataforma aurkeztu nahi dizugu. Honen bidez zure seme-alaben jarraipen akademikoaren kudeaketa hobetu nahi dugu. Web tresna bat denez, interneta duen edozein ordenagailutatik sartu ahal izango zara. Horretarako guraso bakoitzari **erabiltzailea** eta **pasahitza** emango zaizue.

“Educamos”-en zure seme-alaben hutsegiteen, atzerapenen, noten, ordutegien, lanen eta azterketen daten informazio eguneratua aurkituko duzu.

Plataforma hau “firefox” nabigatzailearen bidez erabiltzeko dago prestatuta.

2. PLATAFORMAN SARTZEKO

Plataforman sartzeko www.floreaga.eus-en aurkituko duzun ikonoan klikatu behar duzu.

Hau da agertuko zaizun pantaila

Lehendabiziko aldiz sartzen zarenean, **pasahitza aldatzera derrigortuko** zaitu edo **zuk alda dezakezu** .

Pasahitza aldatzeko **NIRE DATUAK-**en klik egin

Honelako pantaila agertuko zaizu:



Erabiltzailea eta pasahitza alda ditzakezu. **Gogoratzeko erraza** izango zaizuna jartzea gomendatzen dizugu, eta baita **inori ez esatea eta inoren eskura ez jartzea** ere.

"Pasahitzaren oroigarria" zer da? Egunen batean pasahitza ahaztuko balitzaizu sistemak zuk emandako email helbidera korreo bat bidaliko dizu pasahitz berriarekin, baina segurtasun kontuak direla eta horretarako berak zuk pantaila honetan idatzitako galdera egingo dizu, eta zuk pantaila honetan idatzitako erantzuna eman beharko duzu.
Plataformak pasahitza aldatzera derrigortzen bazaitu, sartzen zarenean **bakar-bakarrik** erabiltzailea/pasahitza eta galdera/erantzuna alda ditzakezu.

Behin pasahitza aldatutakoan ...

Kontu handiz ibili beharko dugu **"pasahitza gogoratu"** agertzen denean **EZ** esateko. Baietz esanez gero, ordenagailu horretan ondoren datorrena gure datuekin sartu ahal izango da eta.

3. INFORMAZIOA JASO, ALDATU, SORTU

Hurrengo pantaila honetan informazioa izango duzu eskura.





Pantaila honetan agertzen dena alda dezakezu.



Hemen dokumentuak sor ditzakezu OFFICE 365arekin.





4. HUTSEGITEAK IKUSI, GERTATU DIREN EDOTA GERTATUKO DIREN HUTSEGITEAK JUSTIFIKATU

"JUSTIFIKATU" ikonoan klikatutakoan gertatutakoak ebaluazioka ikus ditzakezu, baita "intzidentzia" motaren arabera ere.

Gurasoek seme-alaben **egun osoko, klase baten edo klase batzuen hutsegiteak justifikatu** beharko dituzue. Horretarako **"JUSTIFIKATU"** ikonoaren gainean sakatu behar duzue.

Adibidez,

1. **egoera. DAGOENEKO GERTATU DENA JUSTIFIKATU**

   Eman dezagun gaur irailaren 28a dela eta seme-alaba irailaren 27an ez zela klasera joan ustekabe bat izan zuelako. **"JUSTIFIKATU"** ikonoa klikatu eta gero **"GERTATUTAKO INTZIDENTZIAK"** aukeratu behar duzu. Bertan ageriko diren hutsegiteak aukeratu, justifikatzeko arrazoia idatzi eta ondoren **justifikatu** botoia klikatu.



2. egoera. GERTATUKO DENA JUSTIFIKATU. EGUN OSO BAT FALTAN.

Demagun gaur irailaren 13a dela eta seme-alaba irailaren 14an ez dela egun osoan joango klasera sendagilearengana joango delako, edo egun batzuetan gaixo egongo delako.
Aurrena **“JUSTIFIKATU”** klikatu eta ondoren **“Ez-etortzen justifikazioa daten arabera”**. Ondoren faltako den azken eguna aukeratu **“amaiera data”** eta gero faltaren lehen eguna **“hasiera data”. Egun bakarra izanez gero data berbera izango da. “Egun osoa” laukia aukeratu “Iruzkina” bete, faltaren arrazoia idatziz eta segidan “Justifikatu” aukeratu.**

Hau egindakoan beste pantaila hau agertuko da, bertan “Ados nago ____ ez-etortze justifikatzearekin” baieztatu behar da horixe aukeratuz. Gero “ONARTU” sakatu behar da.





3. egoera. GERTATUKO DENA JUSTIFIKATU. KLASE BATZUK FALTAN.

Demagun gaur urriaren 23a dela eta seme-alaba ez dela urriaren 25ean **lehenengo lau orduetan** klasera joango.

Kasu honetan 2. egoeraren prozedura jarraitu behar duzu, baina **ez duzu "egun osoa" aukeratu behar.** Pantaila berrian klaseak bi zutabetan agertuko dira. Ezkerrekoan noiztik eta eskuinean noiz arte aukeratu beharko duzu. Beste guztia 2. egoeran bezala egin beharko da.





5. KONTUAN HARTU

- **Kontuz pasahitzekin.** Oso garrantzitsua da inori ez esatea gure pasahitza, ezta beste batek eskuratzeko moduan lagatzea ere.
- Azterketaren notak irakasleak plataforman sartu bezain laster agertuko dira.
- Ebaluazio notak ofizialki argitaratzen direnean agertuko dira.
- Hutsegiteak, berandu iritsitakoak, eta bestelako gertakariak egunero agertuko dira.
- Pantaila nagusiko "**Nire datuak"** ikonoan sakatuz erabiltzailea eta pasahitza, telefono zenbakia eta bestelako datuak alda ditzakezu. Datu hauek eguneratuta izatea oso garrantzitsua da ikastetxean zurekin harremanetan jartzeko erabiliko diren datuak direlako.
- **Plataforma hau "firefox" nabigatzailearen bidez erabiltzeko dago prestatuta.**
- **Pasahitza galduz gero, GURASOEK idazkaritzan berria eska dezakete, ikasleek, berriz, tutoreari adierazi beharko diote.**

6. GALDERA ZEHATZAK

1. EDUCAMOS euskaraz edo gaztelaniaz jarri nahi dut. Zer egin behar dut? Nondik alda dezaket hizkuntza?

Pantaila nagusiko **NIRE DATUAK** gainean klikatu. Pantaila hau agertuko zaizu.



2. Pasahitza aldatu nahi dut. Zer egin behar dut?

Pantaila nagusiko **NIRE DATUAK** gainean klikatu. Pantaila hau agertuko zaizu.



7. ESKUKO TELEFONOA

1. Aplikazioa hemendik eskura dezakezu. Dohain da.

ANDROID

https://play.google.com/store/apps/details?id=com.educamos.familiasv2

IOS

https://itunes.apple.com/es/app/sm-educamos-familias/id1331931771?mt=8

Bilaketa egitea nahiago baduzu, hau idatzi: SM Educamos Familias

2. Lehen pantailan sartu beharreko datuak





Erabiltzailea:

Pasahitza:

Colegio: **668** kodea jarri edo helbide hau jarri behar duzu

https://floreaga-salestarrak-azkoitia.educamos.com

3. Informazioa

Seme-alaba aukeratuz gero, bakoitzari buruz dagoen informazioa ikusteko aukera izango duzu.